



ZESTOAKO UDALA

## AKTA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko irailaren 26an buruturiko ohiko saioari dagokiona.

Zestoako Udaletxean, bi mila eta hemeretziro irailaren hogeita seian, Mikel Arregi Urrutia Alkate jauna mahaiburu delarik, Ruben Alberdi Uranga eta Garikoitz Mendizabal Etxeberria korporakideak bildu dira.

Idazkari lanetan, Ander Cestona Unanue jauna, Udaleko Idazkari-Kontuhartzailea aritzen da.

Ondorengo akordioak hartu dira:

1.- Bere osotasunean onartzen dira Gobernu Batzordeak 2019ko irailaren 10ean buruturiko saioari dagokion akta.

### 2.- INSTANTZIAK

2.1) L.A.A.k, kiroldegiko aparkalekuak gaixki pintatuta daudela dio, oso txikiak direla eta lehen baino aparkaleku gutxiago daudela. Udalak denbora batean dauden bezala utziko ditu aparkalekuak, ikusteko ea arazoak sortzen diren edo ez. Denbora horretan ikusiko balitz arazoak sortzen direla motzak direlako, aparkalekuak mugatzen dituzten marrak ezabatuko lirateteke.

2.2) M.G.G.k, uxoez sortzen duten zikinkeria dela-eta idatzia aurkezten du. Bertan dio arazoa larritu egin dela Euskal Herria Plazan. Horrela, arreta hartzea eta zerbait egitea eskatzen du. Udalak usoak jasotzeko prest dagoenarekin hitz egingo du eta ondoren M.G.kin bilera bat egingo da.

2.3) Xarrondoko ukuilua. Hurrengo Hirigintza eta Pertsonal Batzordean aztertuko da.

2.4) Estazioko industriaguneko partzela brigadaren materialarentzat. Hurrengo Hirigintza eta Pertsonal Batzordean aztertuko da.

2.5) J.D.A.k, 2017ko abenduan kotxe berria erosi zuela eta 2019ko udaberrian konturatu omen da kotxeko txapa burdin-hautsarekin zikinduta dagoela. Bere ustez, fundiziotik dator hauts hori.

Ondorengo erabakiak hartu dira:

Lehena.- Zestoako Udalak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailari udan jaso dituen kexa, argazki eta bideoak bidaliko dizkio. Dokumentazio honekin batera 2 neurgailuak (bat Arroabeko plazan eta bestea industriagunean) jartzeko eskaera bildaliko dio.

Bigarrena.- Zestoako Udala gero eta kezkatuago dago Arroabeko erdigunean eta industriagunean ematen ari diren gertakariekin. Arazoaren larritasuna dela eta, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendariari, bilera hitzordua eskatuko zaio. Bilerara Zestoako Alkatea, Hirigintza Zinegotzia eta udal teknikariak gerturatuko dira, eta helburua egoraren larritasuna norainokoa den azaltzea izango da.

Hirugarrena.- Alkatea, G.C. enpresako gerentearekin harremanetan jarriko da, azken gertaeren inguruan berarekin hitzegiteko (Udalan jasotako kexak, abuztuko gertakariak, ateak irekita...).

2.6) R.E.k, K.S.Coop.en izenean, Sansinenea industriaguneko fundizioak sortzen duen ingurumen kutsadurari buruzko idatzia aurkezten du.

Ondorengo erabakiak hartu dira:

Lehena.- Zestoako Udalak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailari udan jaso dituen kexa, argazki eta bideoak bidaliko dizkio. Dokumentazio honekin batera 2 neurgailuak (bat Arroabeko plazan eta bestea industriagunean) jartzeko eskaera bildaliko dio.

Bigarrena.- Zestoako Udala gero eta kezkatuago dago Arroabeko erdigunean eta industriagunean ematen ari diren gertakariekin. Arazoaren larritasuna dela eta, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendariari, bilera hitzordua eskatuko zaio. Bilerara Zestoako Alkatea, Hirigintza Zinegotzia eta udal teknikariak gerturatuko dira, eta helburua egoraren larritasuna norainokoa den azaltzea izango da.

Hirugarrena.- Alkatea, G.C. enpresako gerentearekin harremanetan jarriko da, azken gertaeren inguruan berarekin hitzegiteko (Udlean jasotako kexak, abuztuko gertakariak, atek irekita...).

2.7) J.J.U.O.k, Sansineneako G.C. enpresak isurtzen duen ke beltzak, kotxean herdoila sortu diola azaltzen du.

Ondorengo erabakiak hartu dira:

Lehena.- Zestoako Udalak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailari udan jaso dituen kexa, argazki eta bideoak bidaliko dizkio. Dokumentazio honekin batera 2 neurgailuak (bat Arroabeko plazan eta bestea industriagunean) jartzeko eskaera bildaliko dio.

Bigarrena.- Zestoako Udala gero eta kezkatuago dago Arroabeko erdigunean eta industriagunean ematen ari diren gertakariekin. Arazoaren larritasuna dela eta, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendariari, bilera hitzordua eskatuko zaio. Bilerara Zestoako Alkatea, Hirigintza Zinegotzia eta udal teknikariak gerturatuko dira, eta helburua egoraren larritasuna norainokoa den azaltzea izango da.

Hirugarrena.- Alkatea, G.C. enpresako gerentearekin harremanetan jarriko da, azken gertaeren inguruan berarekin hitzegiteko (Udlean jasotako kexak, abuztuko gertakariak, atek irekita...).

2.8) Gorka Irureta Aramendik, Aizarnako I.baserrian etxebizitza egokitzeari buruzko hirigintza kontsulta egiten du. Baserri zaharra zutik dagoenez, beste eraikin berririk altxa ezin daitekeenez eta jarduerari lotuak bi bizitza izateko aukera dutenez, jatorrizko baserriari berriro bizitegi-erabilera ematearekin bi helburuak betetzen dira; hau da, jarduerak bi bizitza izango lituzke, eraikin berririk altxa gabe, bi bizitzako erain bakarrean ez bada ere.

2.9) J.L.E.A.k, Arroa Beheko Artzubia aldea ibardiaren berreskurapen eta hobetze lanen inguruko kamioi erregistroa aurkezten du, 2019ko abuztuko hilabeteari dagokiona. Kamioi erregistroa jaso izanaren adierazpena egitea erabaki da.

2.10) M<sup>a</sup>K.U.L.k, Arroagoiko San Joan kalea 5ean, sarrerako eskaileran baranda jartzeko udal baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

2.11) M.R.Z.k, Arroabeko Narkis Balentziaga kaleko haur parkeko kolunpioak eta lurra egoera txarrean daudela dio. Udalak balorazio ekonomiko bat eskatuko du dauden aukerak aztertzeko eta ondoren, dauden aukerekin Hirigintza eta Pertsonaleko Batzordean hartuko da erabakia.

2.12) M<sup>a</sup>K.U.O.k, Gurutzeaga kalea 5 3.eskubia etxebizitzako komunean dutxa jartzeko obretako udal baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

2.13) J.A.O.k, Agotebidea 3ko Agote etxeko teilatuan autokontsumorako 22 eguzki plaka jartzeko udal baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

2.14) A.S.A.S.L.k, Sansinenean duten nabea, 5. eta 6. atek lekuz aldatzeko obretako udal baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

2.15) J.A.O.k, E. baserriaren eraberritzea dela-eta, arkitektoa, obra zuzendaritza eta osasun eta segurtasun arduradunen datuak aurkezten ditu. Erabaki da ontzat ematea aurkeztutako dokumentazioa.

2.16) O.M.k, Villa Anitako hitzarmena gauzatzeko aurrekontua aurkezten du. Erabaki da ontzat ematea aurkeztutako aurrekontua.

2.17) Bidezarra kalean, kotxeek gaizki aparkatzen dutela eta bideko zirkulazioa ez dagoenez bermatuta, marra horia margotzeko proposamena. Erabaki da marra horiak margotzea.

2.18) G.M.E.k, Zestoako EAJren izenean, Zestoara sartu-irteerak hobetzeko proposamena aurkezten du. Udalak herriko saihebidia eta kaleen norabideak aztertzeko ingenieritza bat kontratatzeko asmoa du, eta gai hau txertatuko da.

2.19) G.M.E.k, Zestoako EAJren izenean, 2019ko uztailaren 23an egin zen Kultura Batzordean, herriko plazako zoruaren gaia aztertzea proposatu zuen. Belarren aurkako zein produktu egon daitekeen aztertuko du Udalak eta irisgarritasun aldetik aztertuko da zein ekintza egin daitezkeen.

2.21) Bidegik, Udalak bidaliriko idatziaren erantzuna igortzen du, AP-8 autobidera adskribaturiko lursail batean egiten ari diren lanak egiteko baimenik ez zutela eskatu-eta. Idatzia jasotzea eta dagokion espedientean artxibatzea erabaki da.

2.22) G.L.S.L.k, Sansineneako B.2-4.3 pabiloian ur kontadorea jartzeko udal baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da eta instalazioak, Zestoako Udaleko ur hornidura zerbitzuak ezarriko baldintzak bete beharko ditu.

2.23) Imara Ingeniaritzak, Gainza Forge S.L.ren izenean, industria nabearen exekuzio proiektua aurkezten du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

2.24) J.L.U.k, Portale kalea 3ko Jabekideen izenean, Portale kalea 3ko balkoiak konpontzeko obretako udal baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

2.25) R.A.Y.k, Olaeta 4-5-6-7-8ko Jabekideen izenean, hainbat eskaera egiten ditu. A. y U.i lehen bidali zitzaizen bezala jakinarazpena bidaliko zaio, itxituraren mantenimendua egiteko eta zuhaitzak mozteko eskatuz. Bestalde, garbiketa egingo da eta URAKekin bilera egingo da.

2.27) Z. S.L.k, Idiazpi kalea 5eko zati bat okupatzeko baimena eskatzen du, irailaren 23rako. Baimena ematea erabaki da.

### **3.- BATZORDE INFORMATIBOETAKO AKTAK.**

- 2019ko irailaren 19an, Kultura eta Ondare Batzordeak eginiko bileraren akta onartzen da.
- 2019ko uztailaren 24an, Gazteria, Kirol eta Jai Batzordeak eginiko bileraren akta onartzen da.
- 2019ko irailaren 17an, Gazteria, Kirol eta Jai Batzordeak eginiko bileraren akta onartzen da.
- 2019ko irailaren 17an, Ogasun Batzordeak eginiko bileraren akta onartzen da

#### **4.- ALKATEAREN EBAZPENAK**

Hurrengo Tokiko Gobernu Batzarrean berri emango da.

#### **5.- ELKARRERANTZUN OFIZIALAK**

- Ur Ur Agentziak, Zestoako udalerrian, Agote erreka erretzen eskuin ertzeko zaintza eremuan (Agote industriako 9.zenbakian), Promociones y Construcciones Enalen S.L.k nabe berri bat eraikitze lanei buruzko baimena eskatu dela jakinarazten du.

- Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak, Udalbatza berria osatzeko bilkuraren aktaren kopia ziurtatua eskatzen du.

- Langile Abertzaleen Batzordeak, Prebentzio Ordezkaritza zuzendutako Oinarrizko Prestakuntza urriaren 8an eta 9an izango dela jakinarazten du.

- Ur Ur Agentziak, Zestoako udalerrian, Bainuetxe parean, GI-631 errepidearen 6.350 p.k. dagoen Urola gaineko zubia konpontzeko lanak egiteko baimena eskatu dela jakinarazten du.

- IZFEk, Administrazio Elektronikoko oinarrizko itenbideak elkarri emateko, EAEko Administrazio Orokorrak Estatuko Administrazio Orokorrarekin 2017ko martxoaren 24an eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin 2018ko abenduaren 5ean sinatu dituen lankidetzaren hitzamenekiko atxikimendu protokoloa igortzen du.

#### **6.- GALDERA ETA ERREGUAK**

Alkateak, Ogasun Batzordean aztertu den aurrekontu aldaketaren datu nagusiak eman ditu.

Bestalde adierazi du, Zestoako Pilota taldeak azken legegintzaldietan udal talde desberdinei eskeini izan diela beren kolaborazio ekonomikoa pilota azpiegiturretan erabiltzeko. Zestoako Herri eskolako arduradunei ere eskaintza berdina egin izan zaiela gehitu du.

Azkenik, kolaborazio ekonomiko hori Gurutzeaga frontoiaren eraberritze lanetara bideratzea adostu dela adierazi du, hain zuzen 32.000,00 euroko zenbatekoaz.

Ondoren, G.k Diruzaintza Gerakinari buruzko azalpenak eskatu ditu eta beharrezko azalpenak eman dira.

Alkateak adierazi du kiroldegian amaitu berri diren lanak amaitu ondoren irekitzeko langileekin bilera bat egin dela ordutegiak antolatzeke. Proposamen bat banatu zaiela eta langileen hobekuntza edo iradokizunak jasotzeko epe bat utzi dela gaineratu du.

G.k adierazi du hiru arlo ikusten dituela garrantzitsuak: giza baliabideak, garbitasuna eta mantenimendua. Kirol mahaiaren bidez jakin duela, garbitzaile bat %65ean kontratatuko dela eta lan poltsatik kontratatua dagoen langilea ere %50an mantenduko dela, giza baliabideei dagokienez.

Planteamendua motz gelditzen dela adierazi du jarraian. XXI. mendeko ekipamendu baten zerbitzu egokia emateko ausartagoak izan behar direla.

Alkateak erantzun dio, pertsonalaren egoera ikusita aukera desberdinak daudela:

- Kudeaketa integrala lehiaketa bidez esleitzea.
- Kudeaketa zuzena.
- Transizio epe baten ondorioz erabaki zein eredu ezarri nahi den. Hurrengo legegintzaldian erabaki beharko litzateke hau. Hau egungo langileen egoera ikusita egokia dela deritza.

Lehiaketa bidez kudeatzen bada atzerabiderik ez duela, oo zaila delako gero berriz kudeaketa eskuratzea.

G.k erantzun dio, denborak erakutsiko duela, baina bere ustez ausartagoak izan behar zutela.

Alkateak gaineratu du, mantenimendua neurri batean enpresek egingo dutela, baina G.k agertu duen kezka berak ere baduela aitortu du.

Ondoren, Alkateak berri eman du elizarekin ere bilera bat egin dela eta hainbat gai adosteko daudela:

- Santa Engraziko erlojuaren berritze lanengatiko adostutako elizaren ekarpena (9.000,00)
- Zestoako elizako erlojuarekin zer egin.
- Elizondoko antzokia.
- Endoiako arazoa.
- 

Elizako arduradunarekin bilera egin zela adierazi du Alkateak, eta denaz hitz egiteko prest agertu zela gehitu du. Lehenago Lasako elkartearen ezartzeko elizako lokalaren erabileraz ezetz esan zuten arren, orain prest daudela hitz egiteko adierazi du. Elizondoko eraikina zeharo luze baten bidez uzteko aukeraz hitz egiteko prest agertu direla adierazi du.

Endoiko arazoa, elizaren kontratu bidez zegoen lokala itxita dagoela adierazi du. Auzoan ematen duen zerbitzua kontuan hartu behar dela. Pertsona bat prest dagoela irekitzeko eta pasa den astean Endoian bilera egin zela berri eman du Alkateak.

Elizako erlojua, berriz, kanpandorrean jartzeak hogeita mila euroko kostua duela adierazi du Alkateak, eta eliza ez dagoela dirua jartzeko prest. Koru azpian jartzeko aukera, jendearen bistan, ez da elizako arduradunen gustuko aukera.

G.k erantzun du, ez dagoela aukera desberdinak aztertzeko itxita, baina bere ustez, jatorrizko lekuan jarri beharko litzatekeela.

Eta gai gehiago ez dagoenez, bukatutzat ematen da saioa arratsaldeko 14:21ak direnean, nik neuk, Idazkariak, ziurtatzen dudalarik.

Ander Cestona Unanue

Idazkaria,

O.e

Alkateak,